



OLAZTIKO UDALAREN ZERBITZUKO ZERBITZU ANITZETAKO PEOI IZATEKO HIRU LANPOSTU ALDI BATERAKO LAN KONTRATU BIDEZ BETETZEKO ETA POLTSA BAT SORTZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

1. ARAU OROKORRAK

Deialdi honen xedea da hiru pertsona kontratatzea, aldi baterako lan-kontratu bidez, eta lan-poltsa bat eratzea Olaztiko Udaleko zerbitzu anitzetako peoi izateko hiru lanpostu betetzeko. Probak gainditzen dituzten pertsonekin lan-poltsa bat sortuko da, I. eranskinean finkatutako arauetara jarraikiz kudeatuko dena.

Kontratazioak 2018ko martxoaren 7ko 25/2018 zenbakidun ebazpenari lotuta egongo dira (2018ko martxoaren 21eko 57. NAO on argitaratu zen) eta otsailaren 12ko 2020/55E ebazpenak onartzen duen dirulaguntzaren bidez gauzatuko dira (43. NAO on argitaratuta). Ebazpena, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak eman zuen eta haren bidez onetsi zen interes orokorreko edo sozialeko obra eta zerbitzuak egiteko langabeak kontratatzeagatik Nafarroako toki-entitateei emango zaizkien dirulaguntzen deialdia.

Hautapen-probak egingo dira Nafarroako Enplegu Zerbitzuak bidalitako zerrendan dauden artean. Horretarako, bete beharreko lanposturako eskatzen diren baldintzak eta 2018ko martxoaren 7ko 25/2018 Ebazpenean (2018ko martxoaren 21eko 57. NAO on argitaratua) ezarritako baldintzak bete beharko dituzte ezinbestean.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak SMS bidez jakinaraziko dizkie eskaerak aurkezteko epeak, proba horietan onartuak izateko baldintzak eta horiek gauzatzeko baldintza orokorrak.

Kontratazioa aldi baterako izango da, lan-zuzenbideko araubidean eta lanaldi osoan, astelehenetik ostiralera. 6 hilabeterako kontratua formalizatuko da (10 hilabete arte luza daiteke), eta 2020ko martxotik aurrera hasiko da kontratua. Kontratuak 15 eguneko probaldia izango du.

2. BALDINTZAK

- a. Adinez nagusia izatea eta erretiroko gehieneko adina ez izatea.
- b. B1 gidabaimena edukitzea.
- c. Lehen mailako ikasketen ziurtagiriaren edo baliokidearen titulua izatea.
- d. Lanpostuan aritzeko behar den gaitasun psikiko eta fisikoa izatea.
- e. Nafarroako Enplegu Zerbitzuan (NEZ) lan-eskatzaile gisa inskribaturik egotea.
- f. Funtzio publikoan aritzeko ezgaitua edo gabetua egon ez izana, ez eta administrazio publiko baten zerbitzutik berezia ere.
- g. Olaztin erroldatuta egotea, hiru hilabete lehenenagotik gutxienez.

3. LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK

- a. a. Langileek E mailari dagozkion lansariak jasoko dituzte, gehi % 15eko osagarria, eta haren barruan egongo da aparteko pagen zati proportzionala.

Lansaria ezartzeko, Nafarroako Gobernuko Administrazioako langileei aplikatzen zaizkien lansarien taulak hartu dira erreferentziazat, .

- b. Lanaldia osoa izango da eta ordutegia zerbitzuaren beharretara egokituko da une oro. Administrazio organo eskudunek noiznahi aldatzen ahalko dute, zerbitzuaren beharren arabera.

4. EGINKIZUNAK

Haien eginkizunak zerbitzu anitzetako proiektu dagozkienak izango dira. Aipatze aldera, honako lan hauek egin beharko dituzte:

- Udal eraikinak (frontoia, eskolak, kiroldegia, igerilekuak, kultur etxea...) mantendu eta zaintzea. Halaber, honako hauek egin beharko dituzte: igeltserotza, pintura, iturgintza, elektrizitate, soldadura, zurgintza, mekanika eta garbiketa lanak, eta zangak ireki eta ixtea.
- Espazio publikoak mantendu eta zaintzea (lorategiak, sasiak garbitzeko makina erabiltzea, inausketa, udal eraikinak eta kaleak garbitzea, etab.)
- Herrilurretan egin beharreko lanak, beren lan-kategoriaren barruan sartzen direnak.
- Ibilgailuak gidatzea, udalaren makineria, erreminta eta tresnak erabili, mantendu eta konpontzea
- Hiri-altzariak instalatu eta mantentzea: zutoinak, seinaleak, farolak, bankuak, iturriak, etab.
- Altzariak eta tresnak lekuz aldatu eta jartzea. Jaietan eta ekitaldi publikoetan agertokiak, hesiak eta gainerako tresnak muntatu eta desmuntatzea.

2018ko martxoaren 7ko 251. ebazpenarekin bat, langile horiek egin beharreko obra eta zerbitzuak interes orokorrekoak edo sozialekoak dira eta Olaztiko Udalaren eskumenekoak. Hori dela eta, Udal honek zuzenean gauzatuko ditu. Obra eta zerbitzu horiek ez dute inolaz ere ekarriko ahalmen publikoaren erabilera zuzena edo zeharkakoa eskatzen duten eginkizunak betetzea, ez eta Estatuaren edo administrazio publikoen interes orokorrak zaintzeko ardurari dagozkionak ere.

5. ESKABIDEAK

Eskabideak deialdi honetan argitaratutako ereduari lotuko zaizkio (II. Eranskina). Eskabidearekin batera honako agiri hauek aurkeztuko dira:

- NANaren fotokopia.
- B1 motako ibilgailuak gidatzeko baimenaren fotokopia.
- Lehen mailako ikasketen ziurtagiriaren edo titulu baliokidearen fotokopia
- Enplegu-eskatzailearen txartela.
- Lehiaketaldia barematzeko dokumentazioa
- Olaztin erroldatuta egotearen ziurtagiria, antzinatasunarekin.

Eskabideak aurkezteko epea 2020ko martxoaren 13an, eguerdiko 14:00etan bukatuko da. Aurkezteko tokia: Altsasuko Nafarroako Enplegu Zerbitzua (NEZ).

6. IZANGAIEN ONARPENA

Langabetuak kontratatzeko erabiliko diren irizpideak 2018ko martxoaren 7ko 251. Ebazpenaren zortzigarren oinarrian ezarritakoak izango dira, eta zundaketa egiteko lanpostuaren udalerriri dagokion bilaketa-eremua erabiliko da, kasu honetan, Olazti/Olazagutia.



Eskaerak aurkezteko epea amaituta, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak onartutakoen behin-behineko zerrenda prestatuko du, 254/2018 Ebazpenaren zortzigarren oinarrian ezarritako irizpideen arabera.

Proba teorikoa 2020 martxoaren 18an egingen da, 09:00etan, Olaztiko kultur etxean, eta jarraian proba praktikoa. Euskararen proba egiteko eguna interesatuei jakinaraziko zaie haren eskaeretan adierazitako bideetatik eta bide ofizialez ere bai. Data horiek aldatu daitezke, izangaiek aldeztatik jakinarazita.

7. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA

Hauexek izango dira kalifikazio epaimahaiko kideak:

- Lehendakaria: Olaztiko Udaleko alkate-lehendakaria.
- 1. bokala: Cederna Garalurreko enplegu eta tokiko garapen eragilea.
- 1. bokala: Udaleko albientea.
- 1. bokala: Udal arkitektoa
- Idazkaria: Sandra Martinez Gutierrez Olaztiko udal idazkaria.

Epaimahaia hautaprobak hasi baino lehen eratu beharko da, eta proba praktikoa egiteko teknikariak izaten ahalko ditu.

Epaimahaia ezin izango da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengo osoa gutxienez bildu gabe. Halaber, epaimahaiaren eraketak balio izateko, epaimahaiko buruak edo idazkariak bertan egon beharko dute, edo, hala badagokio, haiek ordezkatzen dituztenak.

Kalifikazio epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo dei-egileari horren berri eman, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan abstentziorako aipatzen diren egoeretako batean badaude. Halaber, izangaiek mahaikideak errefusa ditzakete, arrazoi horietako bat gertatzen denean. Epaimahaia gehiengoz erabakiko ditu deialdiaren oinarriak ulertu eta aplikatzeko moduz sor daitezkeen afera guztiak.

8. PROBAK EGITEA.

Ariketa guztietan dei bakarra izango da. Haietara, izangai guztiek Nortasun Agiri Nazionala edo legez baliokidea den agiriren bat aldean dutela azaldu beharko dute, eta eskatuz gero erakutsi; bestela, kanporatuak izango dira hautaketa-prozesutik.

Ariketen emaitzak Olaztiko udaletxeko iragarki-taulan eta Udalaren web-orrian argitaratuko dira. Ez da banakako deirik edo jakinarazpenik izango.

- a. Proba teoriko-praktikoa: Gehienez ere, 70 puntu. Bi proba izango ditu.
 - i. Proba teorikoa: Gehienez ere, 30 puntu. Erantzun posible bat baino gehiago duten galderak erantzun beharko dira (erantzun bakarra da zuzena), lanpostuaren eginkizunei buruzkoak.

Puntuaziorik onena atera duten zortzi pertsonak pasatuko dira proba praktikora. Berdinketa gertatuz gero, Altsasuko Enplegu Bulegoan enplegu-eskatzaille gisa denbora gehien daraman pertsonaren alde egingo da.

- ii. Proba praktikoa: Gehienez ere, 40 puntu. Baztergarria izango da. Proba bakarra edo bi proba izango dira, egun berean egin beharko direnak. Proba gainditzeko gutxienez ere 20 puntu lortu beharko dira. Proba praktikoa bat edo gehiago egin beharko dira, lanpostuaren berezko eginkizunei buruzkoak.

b. Lehiaketaldia. Euskararen titulazioa eta ezagutza baloratuko dira.

Lanpostuekin zerikusia duten zikloetako baten ziurtagiri profesionalak. Esate baterako: arotzeria, mantentze-lanak, elektrizitatea, mantentze-lan elektromekanikoak, soldadura, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak, lorezaintza, baso-ustiapenak...

4 puntu atal honi lotutako titulu bakoitzeko

Erdi maila edo lehengo LH 1, lanpostuekin zerikusia duten zikloetako batean. Esate baterako: arotzeria, mantentze-lanak, elektrizitatea, mantentze-lan elektromekanikoak, soldadura, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak, lorezaintza, baso-ustiapenak...

4 puntu atal honi lotutako titulu bakoitzeko

Erdi maila edo lehengo LH 2, lanpostuekin zerikusia duten zikloetako batean. Esate baterako: arotzeria, mantentze-lanak, elektrizitatea, mantentze-lan elektromekanikoak, soldadura, nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak, lorezaintza, baso-ustiapenak...

6 puntu atal honi lotutako titulu bakoitzeko

Lehen aipatutako lanpostuekin zerikusia duten zikloetako batean diplomatura edo baliokidea izatea. Esate baterako:

8 puntu atal honi lotutako titulu bakoitzeko

Lehen aipatutako lanpostuekin zerikusia duten zikloetako batean diplomatura edo baliokidea izatea. Esate baterako:

10 puntu atal honi lotutako titulu bakoitzeko

Prestakuntzari buruzko atal honetan gehienez ere 30 puntu lor daitezke.

Euskara: B1 maila (ahozkoa). Gehienez ere, 3,3 puntu.

Euskarari merezimenduei esleitutako puntuazioaren % 11 dagokio:

3,3 gehienez, B1ahoko maila edo baliokidea edo maila altuagoko titulua izateagatik.

2,2 A2 maila eta 1,1, A1 maila edo baliokidea izateagatik.



Euskara-maila hori 103/2017 Foru Dekretuaren 27. artikulua arabera puntuatuko da. Euskara mailaren frogagiri/egiaztagiri ofiziala (B1) ez dutenek abisatuko den lekuan eta egunean egingo da.

9. PROBEN EMAITZAK ETA LANEAN HASTEKO DEIA

Alkatetzak, organo eskuduna den aldetik, hiru hautagai egokienak deituko ditu. Horretarako, kontuan hartuko du guztira lortutako puntuazioa eta lehenago aipatutako 2018ko martxoaren 7ko 251. ebazpena. Berdinketa gertatuz gero, Altsasuko Enplegu Bulegoan enplegu-eskatzaile gisa denbora gehien daraman pertsonaren alde egingo da.

Proba gainditu duten gainerako izangaiekin zerrenda bat osatuko da, lortutako puntuazioari zorrotz jarraituz, sortzen diren batak eta ordezkapenak bete eta bestelako betebeharrei erantzuna emateko.

10. ERREKURTSOAK

Deialdi honen, oinarrien eta aplikatzeko egintzen aurka ondoko errekursoetako bat aurkez daiteke, hautara:

- a. Berraztertze errekursoa, egintzen organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- b. Administrazioarekiko auzi-errekursoa, Administrazioarekiko Auzien Iruñeko Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekursoaren xedeko egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.
- c. Gora jotzeko errekursoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.

Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekursoa aurkez daiteke, deialdia egin duen udal organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita.

11. DATU PERTSONALAK BABESTEARI BURUZKO POLITIKA

Izangaien datu pertsonalak Olaztiko Udalaren ardurakoa den fitxategi batean sartuko dira, eta hautaketa-prozesu hori kudeatzeko erabiliko dira, betiere deialdiaren oinarrien arabera. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako. Nolanahi ere, izangaien zerrendak Udalaren web-orrian eta iragarki-taulan argitaratuko dira. Datuen tratamenduak beharrezkoak dira interes publikoaren aldeko deialdia gauzatzeko (2016/679 Erregelamenduaren 6.1.e artikulua, ekainaren 5eko 113/85 Foru Dekretuan oinarri duena. Dekretuaren bidez onetsi zen Nafarroako Administrazio Publikoetan sartzeko Erregelamendua).

Hautaketa-prozesua gauzatu bitartean eta alderdiek espedientearen inguruan aurkeztu ditzaketen jardueren preskripzio-epetan gordeko dira datu pertsonalak. Prozesu guztia amaitzean behar ez diren datuak ezabatuko dira, betiere aplikatu beharreko artxibo eta dokumentuei buruzko foru araudian ezarritakoarekin bat.

Datuen titularrek eskubidea izango dute euren datu pertsonalak eskuratu, zuzendu (okerrak direla uste badute) edota kentzeko (beharrezkoak ez direnean). Era berean, tratamendua mugatzeko eskubidea baliatu ahal izango dute, betiere legeak aurreikusitako kasuetan, eta tratamenduaren aurka egiteko eskubidea ere izango dute, zirkunstantzia zehatz batzuetan, edota bere egoera pertsonalarekin harremana duten arrazoiengatik. Horretarako, udaletxera jo beharko dute, eta bertan erabili beharreko ereduak emango dizkiete. Era berean, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute Datuak babesteko Espainiako Agentzian (agpd.es), betiere tratamenduak indarreko araudia betetzen ez duela uste badute.

Olazti, 2020ko martxoaren 4a.- Roberto Martínez Mendia alkatea.



I. ERANSKINA: LAN-POLTSARAKO ARAUAK: DEITZEKO IRIZPIDEAK

1. Deialdi honen xedea da hiru pertsona kontratatzea, aldi baterako lan-kontratu bidez, eta lan-poltsa bat eratzea Olaztiko Udaleko zerbitzu anitzetako peoi izateko hiru lanpostu betetzeko. Probak gainditzen dituzten pertsonekin lan-poltsa bat sortuko da. Lan-poltsa hori etorkizunean ordezkapenak bideratzeko erabiliko da, horretarako beharra dagoenean.
2. Lanaldia zerbitzuaren beharretara egokituko da, eta administrazio-organo eskudunek noiznahi aldatu ahalko dute.
3. Puntuazio ordenaren arabera egingo dira beti ere deiak, ondoko paragrafoetan ezarritakoari kalterik egin gabe.
4. Telefonoz, posta elektronikoz edo interesdunarekin komunikazio azkarra eta arina ahalbidetzen duen beste edozein bitartekoren bidez egingo dira jakinarazpenak.
5. 5.- Udalak bi jakinarazpen- edo abisu-saio egingo ditu bi eguneko epean. Kontuan harturiko lan-poltsan dagoen pertsonak gehienez ere 24 orduko epean onartu edo gaitzetsiko du eskaintza. Ezin izan bada harekin harremanetan jarri, edo eskaintza ez balitz onartuko, puntuazio-ordenaren arabera zerrendan dagoen hurrengoari egingo zaio eskaintza.
6. 6.- Justifikaziorako eta kontsultarako, hala behar badu, indarrean dauden lan-poltsen erregistro xehea eramango da, eta baita hautagaiekin harremanetan jartzeko eginiko saio edo/eta tramiteen erregistroa ere, hala behar izanez gero, horien aldetik jasotako erantzunez gainera.
7. Lan-poltsako kide batek behin lanean hasi ondoren lana utziko balu, lan-poltsatik kanpo geratuko litzateke. 15 egun lehenago lana utziko duela jakinaraziko balu, lan-poltsatik kanpo 5 hilabetez geratuko litzateke besterik ez.
8. Gizarte Segurantzako mediku batek eritasunez edota istripuz aldi baterako lan-ezintasuna ziurtatuko balu deitutako hautagaia ez da lan poltsatik baztertuko.
9. Lan-poltsa hau indarrean egongo da helburu bera izango duen beste lan poltsa eratu bitartean.

II. ERANSKINA ESKABIDE EREDU OFIZIALA

Izen-abizenak:, adinez nagusia;

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:.....; Jaioteguna:.....;
jaioterria:.....; bizitokia:; kalea:.....; zenbakia:.....Posta
kodea:.....Telefonoa:.....; e-posta:....., zure aitzinera agertu eta

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

- Deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen ditu, garaiz eta taxuz.
- Honako agiri hauen fotokopia konpultsatua aurkeztu ditu:
 - NANA
 - B1 mailako gidabaimena
 - Lehen mailako ikasketen ziurtagiria edo titulu baliokidea
 - Enplegu-eskatzailearen txartela.
 - Euskara-titulua:

┌ **Euskara-maila egiaztatzen dut (fotokopia**

┌ **Proba egin nahi dut**

konpultsatua aurkeztu du)

└

Hori guztia dela eta, honako hau ESKATZEN DUT:

- Eskabide hau garaiz eta taxuz aurkeztu dudanez, honen bidez eskatzen dut onartua izatea Olaztiko Udaleko zerbitzu anitzetako peoi izateko bi lanpostu betetzeko, proba teoriko-praktikoen eta merezimenduen balorazioaren bidez.

(eskatzailearen data eta sinadura)



III. ERANSKINA: GAI-ZERRENDA

1. gaia.- Igeltserotzako oinarritzko ezagutzak. Erremintak. Materialak. Zolatzea eta alikatatzea. Enkofratuak eta murrak egitea. Obrak zaintzea eta mantentze-lanak.
2. gaia.- Obra txiki edo ertainetako makineria maneiatzeari buruzko oinarritzko ezagutzak.
3. gaia.- Pinturari buruzko oinarritzko ezagutzak. Motak, produktuak, tresnak eta aplikatzeko moduak.
4. gaia.- Igeltserotzan, margoketan eta bestelako mantentze-lan arruntetan erabili beharreko materialen ezagutza eta erreminten erabilera.
5. gaia.- Oinarritzko ezagutzak laneko arriskuen prebentzioko arauen gainean. Segurtasun neurriak. Nork bere burua babesteko elementuak.
6. gaia.- Oinarritzko ezagutzak basogintzari lotutako lanen gainean.